

Hoy, cita con Jacobo Bergareche y Antje Rávic Strubel, y 'cae' Máximo Huerta

Literaktum continúa hoy aunque con una baja de última hora. El escritor Máximo Huerta, que iba a hablar en el centro Tomasene de Alza de su libro 'Adiós pequeño', comunicó ayer a última hora que debía cancelar la cita por un problema personal.

Sí estarán el escritor Jacobo Bergareche, que conversará sobre su libro 'Las despedidas' con Leire Palacios en la librería Zubieta, en la calle Reyes Católicos, a las 19.00, y la alemana Antje Rávic Strubel, que presenta 'Mujer azul', ganadora del premio Alemán del Libro en 2021, en diálogo con Luisa Etxeneki en el centro Ernest Lluch a las 19.00.

PROGRAMA DE HOY

► **Jacobo Bergareche.** Presenta su libro 'Las despedidas' en conversación con Leire Palacios. Librería Zubieta, 19.00.

► **Antje Rávic Strubel.** La escritora alemana dialoga sobre su novela 'Mujer azul' con Luisa Etxeneki. Ernest Lluch, 19.00.

ras obras y porque cuando arrancaba la revolución sandinista muchos vascos vinieron a ayudar».

En 'el país de las mujeres' imaginado y escrito por Belli se impone el llamado «Partido de la Izquierda Erótica», «que no es comunista ni liberal, milita en el 'felicismo', es decir, en la voluntad de ser felices. Ahí no hay 'ciudadanos', sino 'cuidadosos', porque lo importante es el cuidado de la gente». Y en el programa de gobierno de esa formación se propone un sistema educativo en el que los niños aprenden jugando, las mujeres no deben optar entre trabajar o ser madre porque un sistema de guarderías lo permite, los tanques se pintan de rosa y los violadores son exhibidos en jaulas en los parques para que sientan vergüenza.

«Quiero a los hombres y no quiero un gobierno de mujeres contra hombres, pero sí una presencia en los centros de poder de quienes somos el 52% de la población», remató Gioconda Belli, escritora que habló de sexo, placer o menstruación «cuando no era tan fácil como hoy».

'Surflaria' en Intxaurreondo

También ayer, en la jornada inaugural de Literaktum, en el centro de cultura de Intxaurreondo, Uxue Alberdi y Susanna Martín, guionista y dibujante, respectivamente, conversaron en torno a su cómic 'Surflaria' sobre el que gira la exposición abierta en ese centro.

«Liburutegiei gorazarre egin nahi nien oso gauza bereziak gertatzen direlako»

Bi aurpegiko proiektua, 'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez', aurkeztu dute: antzezlan eta album ilustratua

JON AGIRRE

DONOSTIA. Leihotik botatuko perezko hegazkin sorta eta banean dituen mezuak, «desafiotxoak», dira 'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez' ikuskizunaren eta album ilustratuaren abiapuntua. Proiektu «pekuliarra» bi sortzaileek, Harkaitz Cano idazleak eta Fernando Bernués eszenografoak, atzo adierazi zuten bezala, «normalean obrak liburutetan oinarritzen» direlako eta kasu honetan, alderantziz izan delako.

Azkenaren «idea eta bizipena» izan da haria, eta antzezlanetik abiatuta sortu du Canok testua. «Antzezlanean protagonistak liburu bat aurkezten du eta liburu hori egiazkoa izatea nahi genuen, ez atrezkoko». Hartatik hainbatetan izan dute mintzagai proiektua, eta tartekartarteka Cano ideiak biltzen joanda, baina Bernuésék azaldu bezala ez du azken forma hartu Valentziako konpainia baten deia jaso arte, familia osoari bideratutako obra egiteko eskariarekin. «Horrek ere ahalbidetu du bai liburuak zein antzerki-emanaldia euskaraz, gaztelaniaz, galegoz eta valentzieraz egitea», xehatu zuen eszenografoak. Euskarazkoa Tanttakak oholtzaratuko du Miren Arrieta, Sara Cózar eta Asier Fernandez aktoreekin eta gaztelaniazkoa Nafarroako In extremis konpainiak.

Bernuésen arabera «konplizitate horretatik eta jolas editorial eta eszeniko bikoitz horretatik» mamitu da istorioa. Lehenik Canorekin eta ostean Isabel Herguera artista donostiarrarekin, liburuak zein antzerkirako ilustrazioen egilea. Apirila edo maiatza aldera batu zen proiektura, 'Sultanaren ametsa' zinta oraindik amaitu gabe zuela. «Ez zeukan denbora asko, baina eskuzabaltasun handik hartu du liburuak eskatzen zituen ilustrazioak egiteko», eskertu zion Canok.

Hala ere, ez zuen inolako zailtzarik izan Herguerak, bi proiektuek funtsezko ideian bat egiten dutelako. «Abiapuntu bera dute, liburuari omenaldia egitea, eta niretzat liburuak beti izan dira, batez ere haur nintzela, ihes egiteko modu bat eta pelikuletan bezala amets egiteko aukera bat. Proiektu perfektua da». Bere lanetik ilustrazioek duten «formatu zinematografikoa»



Fernando Bernués, Isabel Herguera eta Harkaitz Cano, atzoko aurkezpenean. FELIX MORQUECHO

MUNDUA PIZTATUTA DAGO BAINA HANTXE GABILTZA OINEZ
HARKAITZ CANO

Ilustratzailea:
Isabel Herguera.
Argitaletxea: Erein
Orrialdeak: 104.
Prezioa: 24,50 euro.



ESALDIAK

Harkaitz Cano
Idazlea

«Liburuak ezkutatzeko joera dugu eta hurrenkera alfabetikoaren edo sailkapenaren zera aldarrikatzen dut»

Fernando Bernués
Eszenografoa

«Valentziatik jasotako dei batek jarri zuen proiektua martxan eta horrek ahalbidetu du lau hizkuntzatan aurkeztea»

Isabel Herguera
Ilustratzailea

«Niretzat liburuak beti izan dira, batez ere haur nintzela, ihes egiteko modu bat, bezala amets egiteko aukera bat»

nabarmendu zituen Canok, «apaisatu eta luzangagoak», eta horiei esker 'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez' liburuak zein obrak «beste geruza garrantzitsu bat» lortzen duela gehitu.

Geruza askoko lana

Proiektuaren bi aurpegiek istorio bera lantzen badute ere, antzezlanak badu ezberdintasun txiki bat, Bernuésék esan bezala «preludio» moduko bat. Izan ere, liburuan hastapenetik Oihana protagonistak hamar urte ditu eta obran, aldiz, Oihana idazlea da eta bere lehen album-ilustratua aurkezten du txikitik hain kuttun zuen liburutegian. Une horretan batzen dira proiektuaren bi aurpegiak: alabarekin nola komunikatu ez dakien aita hegazkinak leihotik jaurtiz eta jolasaren bitartez erronka eta desfioak proposatuz.

Bi sortzaileek aurreratu bezala, paperetako mezuak literarioak dira, esaterako Jutta Bauer, Sylvia Plath, Julio Cortázar edo Chinua Achebe bezalako autoreen aipuak eta horiek deszifratu beharko ditu protagonistak Agata liburuzainaren laguntzarekin. Canok adierazi duenez aita «gertakari lazgarri baten ondorioz kolokan edo galdua» dagoen harremana hegazkinen eta literaturaren bitartez «berreraikitzen» saiatzen da.

Ez da 'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez'

proiektuaren ildo bakarra, egileek «liburutegien gorazarrea» ere egin nahi izan baitute, euren esanetan «liburutegietan oso gauza bereziak» gertatzen direlako, «esaterako bila zoazen liburuaren ondoan dagoena behar duzula, literatur zaleek ondo daiten bezala». Hala, Canoren aburuz bizi dugun sasoiak «liburuak ezkutatzeko joera» dugu eta, beraz, «liburuaren eta hurrenkera alfabetikoaren edo sailkapenaren zera» aldarrikatu zuen.

Patxi Presa Koldo Mitxelena-ko arduradunak azaldu zuenez hasieratik ikusi zuten «obraren egokitzapena aukera bikaina» zela eta hainbat pisuzko arrazoi nabarmendu zituen. Lehen, proiektuak «liburu eta liburutegiei egiten dien gorazarrea» delata; bigarrena, antzezlanak Kultura Eskola programaren baitan ikastetxei bideratutako paseak eskaintzeko aukera baliatuko dielako eta, azkenik, obra bitartean egoitza aldatu denez eta programazioa Santa Teresa komentura eraman denez publikoak espazioa ezagutzeko erraztuko delako.

Paseei buruz, saioak hamar izango direla xehatu du. Gehienak esandako ikastetxei bideratuak izango dira, 9 eta 12 urte bitarteko haurrek antzezlan ikus dezaten azaroaren 14, eta beste bi publiko orokorrari zabalduak. Azken hau abenduaren 16an izango da eta izen ematea azaro amaieran zabalduko da.